



GABON KANTAK

1. OLENTZERO

Olentzero joan zaigu mendira lanera,
intentzioarekin ikatz egitera,
aditu duanian Jesus jaio dala
laisterka etorri da berri ematera.

Horra, horra, gure Olentzero,
pipa hortzian duela eserita dago,
kapoiak erre baditu arraultzatxoekin
bihar meriendatzeko botila ardoakin.
Olentzero buru handia, entendimentuz jantzia
bart arratsian eran omen du hamar arruko zahagia
Ai, urde tripandia. Tralaralala, tralaralala.(berriz)

Olentzerok dakarki, atsegin da poza
jakin bait du mendian Jesusen jaiotza.
Egun argi honetan alaitu bihotza,

4. HATOR, HATOR

Hator, hator mutil etxera
gaztaina zimelak jatera.
Gabon gaba ospatutzeko
aitaren ta amaren ondoan.
Ikusiko dut aita barrezka
ama be poz atseginez.

(Eragiok mutil aurreko
danbolin horri,
gaztainak erre artean
Gaztainak erre artean
txipli, txapla, pun.

Gabon gaba pozik igaro
daigun!) berriz

2. GAUEKO ILUNEAN

Gaueko ilunean
zuhaitz bitartean
ilargia ageri da
borobil betean.

Lalara lario
lalaralario.....

3. HAUR EDER BATEN BILA

Haur eder baten bila
gabiltza zorutzen
ta izarrak esan digu
galdetzeko hemen.

Jangoikoaren herri
maite Jerusalem
esan zaiguzu laister
Jesus non jaio den.

Artzai buru txuri bi
Antxon eta Peru
Belengo estalpera
etorri zaizkigu.

Sartu dira barrena
Manueltxogana
eskeintza egin diote
arkumetxo bana.

Batek arkumea ta
besteak ardia
ondo konpontzen dira
Jose ta Maria.

5. AU HAU GAUAREN ZORAGARRIA

Ai hau gauaren zoragarria
Jesus jaio da Belenen,
herritik herri bila gabiltza
bila gabiltza beraren.

Aingeruak kanta,
artzai onak dantza,
guztiok alabantza,
zuri zor dizugu.

Astoak,a!
idiak, mu!
atseginik badugu.

Hartu makilak eta
jantzi abarkak
artzaiak joan ziraden
Jesusen bila.

Ai ze atsegina den
dantzan jende guztiak
salto brinko eginik
denak joan ziran.

Ai hau gauaren....

7. KANTA ALELUIA

Kanta kantari daude zeruan
Kanta kantari aingeruak (berriz)

Kanta aleluia
Kanta aleluia
Beti aleluia
Kanta aleluia (berriz)

Epel epel sukalde giroan
Aitaren ta amaren ondoan (berriz)

Kanta aleluia...

Gaur jaio zaigu Jesus haurtxoa
Goratu dezagun Jainkoa (berriz)

Kanta aleluia.....

6. GABON GAUEAN KANTA

Mendi aldetik datoz
artzainak, artzainak
bildots bana harturik
bizkar gainean.

Gabon gauean kanta
kanta Aleluia
kanta aleluia
Aleluia
Gabon gauean kanta
kanta aleluia
gauean

Haur txiki bat jaio da
Belenen, Belenen,
guztion jainkoa da,
poztu gaitezen.

Gabon gauean kanta...

Gaur dela jaio jaio
gaur da jaiotzea
zeruko izar ederra
dugu parean.

Gabon gauean kanta....

8. OILARRA KANTA KANTARI

Oilarra kanta kantaria
Kukurruku kukurruku.
Atzerik txitoak ere
Pio, pio, pioka.

Eguberria ospatzen
Kukurruku, kukurruku
Jesus jaio da Belenen.
Pio, pio, pioka.

9. HAURTXO TXIKIA

Lo dago gure haurtxoa
sehaska goxo beroan
Olentzerok ekarriko
dionaren esperoan (berriz)

Ta bitartean
gabon gauean
Olentzero dator
gurdi gainean (berriz)